


# Curriculumaren aldaketa, hobekuntzarako aukera

Mikele Aldasoro
2015-03-11

ikastolenelkartea

**Helburua:**

Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuaren kalitatean eragiten duten elementu esanguratsuenak zein diren, eta elementu horiek ikasleen ikaskuntzen hobekuntzan nola elkar eragiten duten azaltzea.

# Curriculum berritzailea




Pedagogiaren alorrean
aldaketa esanguratsuak eta kualitatiboak


Irakaskuntza
Diziplina-arloetan antolatutako jakintzen transmisioa
Oinarrizko konpetentzien garapena ahalbideratzen laguntzea
Curriculum berriaren funtsezko galdera ez da ikasleek zer dakiten, baizik eta dakitenarekin zer egiteko gai diren

# Konpetentzien baitako curriculuma



## Ikasmaterialak

Pedagogia-berrikuntza bat gelaratzeko bitarteko eraginkorrenak


Ikaslearen irteera-profilean oinarritutako curriculuma
Edukiak egoera-familia bati aurre egiteko baliabide
Euskal curriculum espezifikoari eta gainerako esparruei dagozkien kultur edukiak
Hizkuntzen trataera integratua eta integrala
Prozedurak (metadiziplinarrak eta diziplinarrak)
Konpetentzia digitala
Ebaluazio diagnostikoa, hezigarria eta azken ebaluazioa lantzeko proposamenak
Ikasmaterialak euskarri desberdinetan

# Ikasgela: pedagogia-berrikuntzaren ardatza



Curriculumaren eskakizunekiko irakasle eta ikaslearen arteko erlazioan zer aldatu edo hobetu behar den **ulertzeak** baldintzatzen du ikasleen ikaskuntzen hobekuntza


Ikaslea
Ikaskuntza
Irakaslea
Curriculumaren eskakizunak



# Curriculum berriaren eskakizunei erantzuteko irakasleen konpetentzia

# Irakaslearen profila eguneratzea

# Irakaslearen konpetentziak

- Bitarteko didaktikoak ikasleen premietara egokitzeko edo moldatzeko konpetentzia.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak erregulatzeko konpetentzia.
- Konpetentzia digitala:
  - irakaskuntza-praktikan teknologia txertatzeko eta
  - euskarri horren aplikazio didaktiko egokia egiteko.
    - ➢ Ikaskuntza interaktiboa eta kooperatiboa.
      - ➢ Ikasleen lana kudeatzeko modu berriak.
- Ikasleak beraien ikaskuntza eta lanetan inplikatzeko konpetentzia.
- Beste irakasleekin elkarlanean aritzeko konpetentzia.
- ….

## Irakasleen prestakuntza

Gelako hezkuntza-praktika hobetzeko lehenetsi beharreko estrategia-ildoetako bat

# Irakasleen prestakuntza

Ikasmaterial berrietan ardaztuta

Presentziala: mintegia
Birtuala: eki-elkargunea

- Ikasgelan ezarpen eraginkorra egiteko ezagutzak eta trebetasunak sendotu.
- Praktikari buruzko gogoeta, balorazioa partekatu.

## **Foro eraikitzaileak**

*Irakasleek elkarrekin eta elkarrengandik ikasiz, norberaren ikasgelako jarduna hobetzeko aukera*

Hezkuntza-praktika hobetzeko ikasteak motibazioa, konpromisoa, esfortzua eskatzen du,

ETA DENBORA…

Urteetako egiteko moduez hezkuntza-praktikari buruz eraikitako pentsatzeko moduak eta sinesmenak aldatzea ez da erraza.

# Ebaluazioa

Ikaskuntza indartzen eta haren kalitatea hobetzen duen jarduera.

Ebaluazioaren funtzio hezigarria

Ikasten duten ikasleak dira, batez ere, euren zailtasunak identifikatzen eta erregulatzen dakitenak, eta zailtasunei aurre egiteko laguntza esanguratsua eskatzeko eta aurkitzeko gai direnak.

- *Zergatik edo zertarako egin behar dut hau?*
- *Ez dakit nola jarraitu: lagunduko didazu?*
- *Emaitza hau ez da espero nuena! Non desbideratu ote naiz?*

Ikasteko gaitasuna erlazionatuta dago ikaskuntza auto-erregulatzeko gaitasunarekin.

# Auto-erregulazioa eta ikaskuntza

**Ikaskuntza-helburuak**

- *Zer da ikasi behar dudana?, zertarako?*

IKASKUNTZA EDUKIEN FUNTZIONALTASUNA

**Ikasitakoa baliatuz egiten jakiten behar dena**

- *Zein da proposatu zaidan zeregina?*
- *Zertarako edo zergatik egin behar dut?*
- *Zer urrats / eragiketa egin beharko ditut?*
- *Zein ordenatan?*

PLANIFIKAZIOA

**Ebaluaziorako irizpideak / lorpen-adierazleak**

- *Zer irizpidetan oinarritu behar dut ondo ari naizela jakiteko?*
- *Zer akats egin ditut?*
- *Nola zuzendu dezaket arazoa?*

IKASKUNTZEN AUTO ERREGULAZIOA

Ikaskuntzaren helburu lehenak

Konpetentzien baitako curriculuma: ikasleen autonomia

“Egiten eta ekiten jakitea” oinarrizko konpetentzia

Ikasleak bere ikaskuntzak auto-erregulatzen ikasteak nork bere burua alderdi guztietan erregulatzea eskatzen du: kognitiboan, prozedurazkoan eta **emozionalean**.

# Bere buruarengan eta gaitasunetan konfiantza, auto-estimua, ikasteko motibazioa...

- Ikasleari eskakizun-maila eskuragarria, baina ez hutsaren hurrengoa, jartzen dioten ebaluazio-irizpideak / lorpen-adierazleak eratzea.
- Askotariko erregulazio-tresnak proposatzea: *kontrol-zerrendak, orientazio-oinarriak….*
- Zailtasunei atzeman eta berehala aurre egiteko jarrera erakustea.
- Ikaskideen arteko laguntzak antolatzea: laguntza kooperatiboak.


Ikaslea
Ebaluazio hezigarria
Ikaskuntza
Irakaslea
Curriculuma



Ikastolako curriculum-proiektua talde egitasmoa da

Hobekuntza-saiakerak pertsonala eta komunitarioa izan behar du, ikastolako hezkuntza-komunitateko kideek konpartitzeko moduko **kultura pedagogikoa** eraiki ahal izateko.

**Lidergo pedagogiko indartsua**

# Aldaketa pedagogikoa bultzatzen duten faktore kritikoak

- Konpetentzien baitako hezkuntza-ereduarekiko koherentzia pedagogikoa duten ikasmaterialak.
- Irakasleen profila eguneratzea.
- Ikaskuntza interaktiboa eta kooperatiboa bultzatzea.
- Ebaluazio hezigarria indartzea.
- Lidergo pedagogiko indartsua.

# Eskerrik asko!